

Kostuen egitura

ACLE enpresak lehen mailako materiala erabiltzen du. Enpresa txikia eta berria denez, kapitala eta kostuen egitura honela planifikatu dugu:

Enpresa berriak garenez, kostuak ahal dugun neurrian minimizatuko ditugu beti kalitatea eta diseinu hoberenak mantentzen.

Hasierako inbertsioa

8000 euro inbertituko ditugu materiala, ekoiztu ahal izateko, publizitatearen kostuei aurre egiteko eta denda ipintzeko.

Kostu finkoei begira, webgunearen hosting-a daukagu. Gure lan bulegoa Carmenen aitak daukan garaje batean izango dugu; lokal bat alokatuz gero, kostua askoz handiagoa izango lirakeelako. Gure webgunean lan egiteko, gure esku lana erabiliko dugu kide batzuen prestakuntza eta abilezia aprobetxatuz, eta Eleneren ekipo informatikoak egin nahi ditugun jarduerak egiteko.

Kostu aldakorrak:

Argia 55 euro lberdrola enpesarekin.

Soldatak, 4 ak bazkideak garenez eta enpleaturik ez dugunez kostuak murrizteko, irabazien %15 izango da bakoitzeko.

Materialak, kalitate hobereenezkoak erosiko ditugu prezio hoberenetan gure betaurrekoak ahalik eta merkeenak izateko.

Betaurrekoaren armazoa ekoiztuko ditugu baina gure hornitzaileei kristal graduatuak eta titanioa erosiko dizkiegu.

Kristalaren prezioa, graduazioaren arabera izango da. 0,5 rekin 30euro, eta 0,5 bakoitzeko 10 euro gehituko da. Direct optic izango da gure hornitzailea.

Titanioa behar izango dugu armazoiak ekoizteko. Gure hornitzailea, Enpresa Santa Lucía izango da. Enpresa hori, Bilbokoa da eta gure betaurrekoak titaniozko egitura izango dute 8euro lamina bakoitzeko (2,5x100x100mm).

Gure enpresak publizitatean inbertitzea oso garrantzitsua izango da gure irabazientzako.

Eitb-n 20:00tik 21:00-era iragarki bat botako dugu aste osoan zehar, teleberriaren aurretik eta 2.200 euroko kostua izango du. Sare sozialetan ere egongo gara, influencer garrantzitsu batzuen lagunak gara eta betaurrekoen ale batzuek eman eta gero, dohaineko publizitatea egingo digute.

Publizitatea postontzietan banatuko ditugu eta 0,05 euro unitaterako kostua izango dute gutxi gorabehera guk egingo ditugulako eta bakarrik papera eta tintaren prezioa hartuko delako kostuan. Gainera, asko eginez gero kostua murriztuz joango da.

Betaurrekoen armazoiaren prezioa: 55 euro eta armazoiaren ordezkoa 30€.

Kristalen prezioa aldatu ahal da graduazioaren arabera: 0.5 35euro, 0.5 bakoitzeko 10 euro gehiago.